

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko azaroaren 13tik 17rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: BPGd

	3º Trimestre	2º Trimestre
Eurozona	0,6% (0,6%)	0,60%
Alemania	0,8% (0,6%)	0,60%
Francia	0,5% (0,5%)	0,60%
Italia	0,5% (0,5%)	0,40%

Datuaren analisisia


Lehen kalkularen arabera, Euroguneko ekonomia % 0,6 hazi zen uztaila eta iraila bitartean. Gehien hazi ziren herrialde handien artean Alemania eta Espainia nabarmentzen dira, herrialdeon barne produktu gordinaren hazkundera % 0,8koa izan baitzen urteko lehen hiruhilekoan. Alemaniaren kasuan, inbertsioari eta kanpo sektoreari esker, datuak bi hamarren egin zuen gora aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Espainian, ordea, hamarren bat behera egin zuen BPGd-ak. Erritmo motelagoan, Frantzia eta Italiak % 0,5eko hazkundera lortu zuten. Urte arteko kopuruetera ekarrita, Euroguneko hazkundera % 2,5ekoa izan zen, Espainia (% 3,1) eta Alemaniaren (% 2,8) bilakaera positiboari esker, Frantzia (% 2,2) eta Italiaren (% 1,8) aurretik.

Adierazlearen azalpena

Eurostatek argitaratzen du Barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Eurogunek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KPI



CPI YOY Index (US CPI Urban Consumers YOY NSA) US ipc Diario 31MAR2010-20NOV201 Copyright© 2017 Bloomberg Finance L.P. 20-Nov-2017 10:34:11

Datuaren analisia


Joan den urrian, prezioek % 0,1 egin zuten gora irailekoekin alderatuta. KPIa % 0,5 hazi zen baitzen irailean. Prezioen moteltze hori energiaren eta, batez ere, gasolinaren prezioen jaitsieraren ondorio izan zen. Ildo horretatik, azpiko inflazioa, elikagaien eta energiaren prezioaren hegazkortasunaren eragina alde batera uzten duena, % 0,2 igo zen urrian, aurreko hilean baino hamarren bat gehiago. Urte arteko tasa orokorra eta azpikoa, bestalde, bi hamarren igo ziren, % 2,8raino eta % 2,4raino, hurrenez hurren.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: BPGd



Datuaren analisia


2017ko hirugarren hiruhilekoan, Japoniako BPGd-ak urte arteko % 1,4 egin zuen gora, esportazioen aurrerapenari esker batik bat. Uztaila eta iraila bitartean, munduko hirugarren ekonomia % 0,3 hazi zen aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, zazpigarren hiruhilekoz jarraian.

Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Herrialde batek edo ekonomia batek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: XEHEKAKO SALMENTAK / INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisia

Urrian, xehekako salmentak eta industria-ekoizpena % 10eraino eta urte arteko % 6,2raino igo ziren Txinan, hurrez hurren. Beherakada bat gertatu zen lehen hiru hiruhilekoetako hazkundearen aldean, burbuila baten arriskua eta ekonomia-sektore zehatz batzuen apalankatze-maila murrizteko Gobernuak ezarritako neurrien ondorioz ziur aski.

Adierazlearen azalpena

Xehekako salmenten adierazleak xehekako salmenta-guneetako diru-sarreraren kopuru osoa neurtzen du, eta kontsumitzailearen gastuaren ahalmen orokorra eta xehekako saltegien arrakasta erakusten ditu. Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
11/20	Japonia	Balantza komertziala	¥330.0b
11/20	Alemania	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	% 0.2
11/20	Estatu Batuak	Lider indizea	% 0.6
11/21	Espainia	Balantza komertziala	--
11/21	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta	5.40m
11/21	Estatu Batuak	Hileko etxebizitzaren salmenta	% 0.2
11/22	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
11/22	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	% 0.3
11/22	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-0.8
11/22	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	98.2
11/23	Alemania	Hiruhileko BPGd SA	% 0.8
11/23	Frantzia	Enpresen konfiantza	109
11/23	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	57.2
11/23	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	56.6
11/23	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	55.9
11/23	Erresuma Batua	Hiruhileko BPGd	% 0.4
11/24	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
11/24	Espainia	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	--
11/24	Alemania	IFO enpresen egoera	116.5
11/24	Italia	MoM agindu industrialak	--
11/24	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
11/24	Alemania	Inportazio-prezioen hileko indizea	% 0.5

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Jaitsiera orokorren astea burtsa-merkatuetan. Azpimarratzekoa izan zen, baita ere, oinarrizko industriaren eta petrolio-enpresen portaera eskasa, lehengaien prezioen jaitsieraren ondoren. Agenda politikoari dagokionez, Alemanian ustekabeen eten ziren koalizio-gobernu bat osatzeko negoziazioak Merkelen kontserbadoreen, liberalen eta berdeen artean. Bada, egoera hori aintzat hartuta, bi gauza gerta litezke: gutxiengo gobernu bat osatzea edo hauteskunde berrietara deitzea. Erresuma Batuan, alderdi kontserbadoreko 40 diputatuk zentzura-gutun bat sinatu zuten Mayren irteera behartzeko, *tory*-ak gero eta atsekabetuago baitaude lehen ministroaren kudeaketarekin. AEBetan, bestetik, zerga-sistema berritzeko Trumpen proposamena onartu zuen kongresuak. Nolanahi ere, oraindik Senatuak onartu behar du erreforma, eta hori zailagoa izango da, zerga-sortak *Obamacare* legea indarrik gabe uztea barne hartzen duelako. Makro datuek Europa eta Japoniako ekonomiaren hobekuntza berretsi zuten.

ERRENTA FINKOIA:

Zorraren merkatuan errentagarritasunek behera egin zuten. Bada, 10 urterako bonu alemanaren errentagarritasuna 5 op jaitsi zen, % 0,36raino. Halaber, Espainiako hamar urterako tasa 2 op jaitsi zen, % 1,56raino, eta arrisku-prima, beraz, 3 op handitu zen, 119 puntuetaraino. AEBetan, berriz, kurba lautu egin zen, bi urterako tasak 7 op egin baitzuen gora eta 10 urterakoak 5 op behera. Kreditu-merkatuan aldaketa gutxi.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Euroak balioa irabazi zuen dollarraren aldean, Euroguneko ekonomiaren bilakaerari buruzko datu pozgarrien ondoren. Erresuma Batuan bizi den tentsio politikoaren ondorioz, liberaren balioak % 1,12 egin zuen behera euroaren aldean. Lehengaiak dagokienez, petrolioaren prezioak % 1,84 egin zuen behera. Horrez gain, gertaera hauek ere eragina izan zuten kotizazioan: 2018ko eskariaren bilakaeraren inguruan Energiaren Nazioarteko Agentziak egindako adierazpen zurrigoak, inbentarioen eta ekoizpenaren datu hobeak AEBetan eta azaroaren 30eko bileran Errusiak ekoizpenaren murrizketen hedapenari babesa emango dion ala ez. Urrearen balioa, bestetik, % 1,47 igo zen, 1.294,20 \$/ontza mailaraino.

INDIZEAK	PREZIOA	%Aldaketa astean	%Ald 2017
MSCI WORLD (Local)	1.542,84	-0,46	13,09
IBEX 35	10.010,40	-0,82	7,04
DJ EURO STOXX 50	3.547,46	-1,29	7,81
DJ STOXX 50	3.137,46	-1,26	4,22
FTSE	7.380,68	-0,70	3,33
S&P 500	2.578,85	-0,13	15,19
Dow Jones	23.358,24	-0,27	18,19
NASDAQ	6.782,79	0,47	26,00
NIKKEI 225	22.396,80	-1,25	17,17
MSCI EMERGENTES (Lo	60.701,52	0,25	27,39
MEXBOL	47.857,14	-0,36	4,85
BOVESPA	73.437,28	1,76	21,93
SHANGHAI	3.543,03	-1,44	9,03
Rusia Rts Moscú	1.132,45	-2,10	-1,73

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa astean	Ald 2017
ALEMANIA 2 URTE	-0,71	-0,01	0,05
ESPAINIA 2 URTE	-0,34	0,00	-0,06
AEB 2 URTE	1,72	0,07	0,53
ALEMANIA 10 URTE	0,36	-0,05	0,15
ESPAINIA 10 URTE	1,56	-0,02	0,17
AEB 10 URTE	2,34	-0,05	-0,10
ALEMANIA 30 URTE	1,24	-0,06	0,30
ESPAINIA 30 URTE	2,85	-0,01	0,23
AEB 30 URTE	2,78	-0,10	-0,29
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/22	51,62	-0,36	-20,42
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/22	244,96	2,65	-43,74

Dibisak	Maila	%Aldaketa astean	%Ald 2017
Dolarra / Euroa	1,18	1,23	11,90
Yena / Euroa	132,20	-0,11	7,44
Libera / Euroa	0,89	1,12	4,57

Lehengaiak	Maila	%Aldaketa astean	%Ald 2017
Petrolio (Brendt)	62,32	-1,84	12,47
Urrea	1.294,20	1,47	12,32

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.